

Kirolak

1. Patronatuak kudeatu behar dituen zerbitzu eta eginkizun desberdinen Barne Erregimeneko Arauak eta funtzionamendu Arautegiak onestea eta Udalari aurkeztea, behin betirako onets daitezten.
2. Patronatura atxikitako ondasunak erabiltzea, eta beren hobekuntza, kontserbazioa, mantenua eta konponketarako behar diren obrak antolatzea.
3. Mota guztietako kontratazio eta esleipenak euren zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %0,30 gainditzen dutenean baina 3.100.100 euro baino gutxiagokoak direnean; eta baita lau urte baino gehiagoko urte anitzetakoak ere, eta lau urtera iristen ez direnak ere, beti eta urte guztietako batutako zenbatekoak lehenengo aurrekontuko baliabide arruntekiko aipatutako ehuneko gaitzen duen.
Osoko Udalbatzaren onespina beharko da aipatu zenbatekoak baino gehiagoko kontratuak gauzatzeko.
Obratako eta zerbitzuetako proiektuak onestea, kontratazio edo emakida hori gauzatzeko eskuduna denean, eta oraindik Aurrekontuetan aurreikusi gabe daudenean.
Ondasun eta eskubideak eskuratzea, horiek Aurrekontuko ohiko baliabideen 100eko 0,30 baino gehiagokoak eta 300.000 euro baino gutxiagokoak direnean. Zuzendaritza Batzordeak gauzatuko ditu, halaber, ondare besterentzeak, ondoko balizko hauetan:
 - a. Balio historiko edo artistikoko ondasun gisa aitortuta dauden eta Aurrekontuan aurreikusi gabe dauden ondasun higikor nahiz higiezinak.
 - b. Aurrekontuetan aurreikusita egonik, ondasunak eskuratzeko zenbatekoak eta portzentajeak gainditzen dituztenean.Osoko Udalbatzaren baimena beharko da aipatu zenbatekoak baino gehiagoko ondasunei buruzko kontratuak gauzatzeko.
Era berean, ondasunak doan eskuratzeko direnean, eta horrek kostubidezko baldintzaren edo modalitatearen bat duenean atxikita, Tokiko Gobernu Batzarraren onespina beharko da.
4. Zerbitzuarenak diren ondasunen probetxamendurako emakidak gauzatzea.
5. Agindu zaizkion zerbitzuen erregimen eta administrazio eginkizunetarako ordezkapenak eta delegazioak onestea.
6. Patronatuko Aurrekontuen Proiektua onestea, Udal Batzarrak onets ditzan, eta aipatutako aurrekontuok ekitaldi bakoitzean garatzea.
7. Eskaintako Zerbitzuei aplikagarri zaizkien prezio publikoak Udalari proposatzea, dagokien Ordenantza Fiskalen bitartez.
8. Langileriaren plantila Udalaren onspenera jartzea, esandako plantila horren arabera izendapenak, igoerak, irazpenak eta ordainsariak erabakiz, indarrean dauden lege xedapenek eta Patronatu honetako erabakiek ezartzen dutenarekin bat etorritik.
9. Ekintza mota guztiak estatutu hauetan ezarritako lamen juridikoen arabera gauzatzeko.
10. Patronatuaren inbentarioa eratu eta irau araztea, Entitate Lokalen Ondasunen Arautegian xedatutakoarekin bat etorritik, eta Udalari jakinaraziz.
11. Profesional, espezialista, enpresa, erakunde, eta oro har, pertsona fisiko eta juridikoekin, bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren eta guztietako zerbitzu pertsonalen prestazioa kontratatzea.
12. Urteko jarduketaren egutegiari dagozkion Jarduketa Oinarriak, Programak eta Proiektuak onestea, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran, burututako lanaren txosten bat gauzatzeko, baita bere ekonomi kudeaketaren berri ematea ere, bidezko den dokumentazioa Udalari igorritik.
13. Estatutu hauen aldaketa Udalaren onspenera jartzea.
14. Helburuak eta Patronatuari atxikitako zerbitzuen ohizko funtzionamendua lortzearren, beharrezkoak diren gainerako ahalmenak gauzatzeko.